



EKOBAROMETRO SOZIALA 2011

LABURPEN EXEKUTIBOA

Bilbo, 2011ko uztaila



© Ihobe S.A., 2011ko Otsaila

**Argitaratua: Ihobe, Ingurunearen Kudeaketarako Sozietate Publikoa
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila**

**Urkixo Zumardia, 36 6. solairua
48011 Bilbao
Tel: 900 15 08 64**

Edukia: Txosten hau Ihebek egindakoa da, Ikertalderen laguntzarekin.

Laburpen exekutiboa

2011ko Gizarte- Ekobarometroa, epe luzeko azterketa bat da, EAEko biztanleek agertutako ingurumenari buruzko kezkek, egonezinak eta hautemateetatik ondorio esanguratsuak atera eta neurtzen dituenak, eta Ihobek, Ingurumenearen Kudeaketarako Sozietate Publikoak bultzatua dena.

Ingurumenari dagokionez, administrazioak politika eta esku hartze egokiak erabaki ditzan ezinbesteko tresna bilakatu da, eta aldi berean, euskal- herritarrek egindako eskaerak modu egokian erantzuteko.

Herritarren parte hartze metodologia, 2010. Urteko azaroa eta abenduaren artean 15 urte baino gehiagoko 2.004 pertsoneri, beraien etxeetara hurbilduz, elkarrizketak eginez.

Parte hartze prozesu honetako ondorio nagusienek, ingurumenaren **informazio maila** euskal- herritarren artean geroz eta gehiago ematen dela adierazten dute. Ohiko hedabideak iturri nagusiak badira ere (telebista, egunkariak eta irratia) interneten erabilera geroz eta nabariagoa da, batez ere gazteen artean.

Ingurumenari buruzko kezka oso handia da oraindik (herritarren %85a oso edo nahiko kezkatua agertzen da), egungo koiuntura ekonomikoak baldintzatuta, beherakada arina izan duen arren aurreko aldiekin alderatzen bada.

Euskal- herritarrari gehien kezkatzen dion arazoa **aldaketa klimatikoa** da; herritarren %63 oso kezkatua edo nahiko kezkatua dago aldaketa klimatikoak EAEan izan dezakeen eraginagatik. Lautik bat inguruk ez du aldaketa klimatikoan sinesten. Gai honi buruz herritarrak duen kontzientzia kontutan hartzen bada nahiko esanguratsua dela esan daiteke: hamarretik zazpi uste du portaera aldatuz aldaketa klimatikoaren eragina gutxitu daitekeela eta hamarretik zortzi prest egongo litzateke ohiturak aldatzeko.

Ingurumenari buruzko kezka nabaria dela eta, EAEn egoera hobetu dela hautematen da (herritarren %56k horrela adierazten du). Aitzitik, munduko ingurumen egoera okerrera doala hautematen da (%42).

Herritarren %72 inguruk **ingurumena babesteko neurriak hartzen ahalegintzen** dela adierazten du. Hala ere, %20ak bakarrik uste du neurri horiek emaitza onak izaten dituela.

Herritarrak ingurumen arazoan aurrean beren ardura onartzen hasiak dira, eta jarrera teoriko nabariak agertzen dituzte ekintza batzuen aurrean, hondakinak sailkatzeko garaian (%74) edo garraio publikoaren erabileran (%64) esaterako. Hala eta guztiz ere ekintza guzti hauek aurrera eramateko orduan ez dute emaitza hain baikorrak izaten.

Azkenik, herritarren zati handi batek uste du EAEn **ingurumen politikari** dagokionez, ez dela neurri handirik hartzen.

Egun dagoen koiuntura ekonomikoa dela eta, 10 herritarretik 8k uste du politikariek ingurumenari ekonomiari edo gizarte gaiei adinako garrantzia eman beharko liotekeela, eta erdiak uste du lehentasunezkoa izanik, bultzatu beharrezkoa dela etorkizuneko aukera ekonomikoa delako.